



URRIAREN 25eko BALORAZIOA hurrengo urratsak.

Kaixo lagunok,

Gure Haurrak ere Badira-tik oso balorazio positiboa egin dugu **urriaren 25eko mobilizazioaren inguruan**. Bilboko kaleak elkartasunez bete genituen, haur eta nerabe palestinarrei eta oro har palestinar herri osoari elkartasuna adierazten eta Israelgo estatu sionistak martxan duen genozidioa irmoki salatuz. Jada ibiltzerik ez dutenen aldeko beste urrats bat eman genuen. Bestetik 12.000 elkaltasun kamiseta baino gehiago saldu ditugu orain arte eta dagoeneko hezkuntzan zein kaleetan elkartasunerako lanabesa bihurtzen ari gara. Zorionak guztioi!

Urriaren zehar ostegunero burutu ditugun elkarretaratzeak ere ezin arrakastatsuagoak izan dira. Euskal Herri osoko 200 ikastetxe baino gehiagotan zabaldu dugu mobilizazioa, orain arte izan ditugun kopuru handiena. Ehundaka langile eta ikasle bildu gara elkartasun dinamika honetan. Osteguneroko kontzentrazioei bukaera eman badiegun ere, **dei egiten dugu gure kamisetak ostegunero eramaten jarraitzeko**, bai ikastetxetan, bai lanpostuetan, bai kaleetan, elkartasuna eguneroko bihurtuz. Gogoratu kamisetak online eskuratu ditzakezuela hurrengo estekan. <https://shre.ink/SLOg>

Bestetik, gure kide Mitxel Elortzak idatzitako **“Askatasun Doinua” ipuina** erosteko aukera ere badago oraindik. Nahi baduzue, idatzi gure emailera edo Instagram bidez mezu bat bidali diezagukezue, eta bidalketak egingo ditugu.

HURRENGO URRATSA:

Azaroaren 20an, Haurren eta Nerabeen Eskubideen Nazioarteko Egunean prentsaurreko bat emango dugu. Bertan, urriaren 25eko ekimenaren balorazio zehatzago egingo dugu, dinamika horren bueltan zenbat diru bildu dugun eta nora bideratuko dugun jakinaraziko dugu.

Bestetik, iaz bezala egun horretan ikastetxe guztietan elkartasun keinuak eta horien berri argazkien bidez guri helaraztera animatzen zaituztegu. Horretarako dinamikan bildutako zapatak hari bezala erabili ahal dituzue.

Bukatzeko, ekimen hau posible egin duzuen guztiei eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu: eskola, ikastola eta Guraso Elkarteei, EHIGE, BIGE, SORTZEN, Ikastolen Elkarteari, sindikatuiei, gizarte-eragileei, bolondresei, pailazoei, artistei, eta gurekin egon zareten guztiei.

Eskerrik asko guztioi. Aurrera jarraituko dugu.

Besarkada handi bat.

**Gure haurrak ere badiarelako, jarrai dezala elkartasun uholdeak!
Genozidioa gelditu!**



URRIAREN 25EKO BALORAZIOA Sigüientes pasos.

Kaixo Lagunok!

Desde **Gure Haurrak ere Badira** hemos hecho una valoración muy positiva de la **movilización del 25 de octubre**.

Llenamos las calles de Bilbao de solidaridad con las niñas y adolescentes palestinos y con todo el pueblo palestino en general y denunciando firmemente el genocidio que comete el estado sionista de Israel. Por otro lado, hemos vendido hasta ahora más de 12.000 camisetas solidarias y ya las estamos convirtiendo en una herramienta de solidaridad tanto en la educación como en las calles. Zorionak guztiei!

Las **concentraciones que hemos llevado a cabo todos los jueves a lo largo del mes de octubre** tampoco han podido ser más exitosas. Hemos llevado la movilización en más de 200 centros educativos de toda Euskal Herria, el mayor número que hemos tenido hasta ahora. Cientos de trabajadoras de la educación y estudiantes nos hemos reunido en esta dinámica solidaria. A pesar del fin de estas concentraciones de los jueves, hacemos un llamamiento a seguir llevando nuestras camisetas todos los jueves, tanto en los centros escolares como en los puestos de trabajo y en las calles. Recuerda que puedes acceder a las camisetas online en el siguiente link <https://shre.ink/SLOg>

Por otro lado, todavía existe la posibilidad de comprar el cuento “Askatasun Doinua”, escrito por nuestro compañero Mitxel Elortza. Si queréis podéis escribirnos a nuestro email o enviarnos un mensaje a través de Instagram y haremos los envíos.

SIGUIENTE PASO:

El **20 de noviembre, Día Internacional de los Derechos de la Infancia y la Adolescencia**, daremos una rueda de prensa. En ella haremos una valoración más detallada de la iniciativa del 25 de octubre, informaremos de cuánto dinero hemos recaudado en torno a esa dinámica y a dónde la vamos a destinar.

Por otro lado, os animamos a que, al igual que el año pasado, realicéis actos de solidaridad en todos los centros escolares del país, usando para ello los zapatos recogidos en esta dinámica, y nos hagáis llegar las fotos de los mismos.

Para finalizar, queremos agradecer a todas las personas que habéis hecho posible esta iniciativa del 25O: eskolak, ikastolak, AMPAS, EHIGE, BIGE, SORTZEN, Ikastolen Elkarteak, sindicatos, agentes sociales, voluntarios, payasos, artistas, voluntarias y a todas las personas que habéis estado con nosotros.

Eskerrik asko denei. Seguiremos adelante.

Un fuerte abrazo.

Gure haurrak ere badirelako, jarrai dezala elkartasun uholdeak!

Genozidioa gelditu!